

II Errepublika Bilbon: Lehen Hezkuntzaren birmoldaketa eta lehenengo hastapenak (1931-1932)

M.^a Olga Macías Muñoz

Gizarte Zientzien Didaktika Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea
Gasteizko Irakasleen Eskola

GAKO HITZAK: Ikerkuntza historikoa. Irakaskuntza publikoa. Lehen hezkuntza. Hizkuntzen ikaskuntza. Bigarren hizkuntza.

1. SARRERA

1931. urtean, erregimen berri bat sortu zen apirilaren 14aren udal hauteskundeetan, II Errepublika. Aldaketa politiko honen eragina nahiko nabaria izan zen lehenengo unetik gizarte esparru guztietan, Errepublikako agintariek ahalegin eskergak egin zituztelako antzinako erret erregimenaren aztarnak ezabatzeke. Hezkuntzaren arloan, errepublikakoek eredu berri bat ezarri nahi zuten, ideia liberalekin lotuta. Hezkuntza eredu berri hau errepublikarrek antolatzen nahi zuten gizarte berrien sustraletan kokatuta, ezinbestekoa zelako hezkuntza sistema egokia garatzea demokrazia bermatzeko. Eta nola bertan zuten demokrazia errepublikakoek ideien arabera? Umeak txiki-txikitatik hezkuntza egokiena jasotzen hiritar aske eta arduratsu izateko.

Bilbon, Errepublikakoek 1931ko apirilaren 14aren udal hauteskundeak irabazi zituzten eta hasieratik Errepublikaren oinarri ideologikoak ezartzen saiatu ziren. Hori dela eta Bilboko udaletxearen lehenengo pausoak hiri honetako hezkuntzaren arazoa konpontzera zuzenduta ziren, korrante pedagogiko berriak erabiliz. Artikulu honetan aldaketa hauen lehenengo pausoak aztertuko ditugu.

2. ERREPUBLIKAREN EZARPENA BILBON: 1931. URTEA

1931. urtearen udal hauteskundeak suertatu baino lehen, egoera politikoa nahiko sutsua zen. Alde batetik, ezkertiarrek Espainiako erret gober-

nuaren ekintzak soberan kritikatzan zituzten herri xehea krisialdi ekonomikoa ez ezik sozialean ere murgildu zutelako argudiatuz. Hori dela eta, Indalecio Prietoren hitzez, beharrezkoa zen erregimen politikoa aldatzea herriaren nahia betetzeko eta porrot zorian zegoen erret erregimena ezabatzea Errepublikak ezartzeko¹. Kontzientzia ideologikoa aparte utzita, kontutan hartzekoa da ere Bilboko egoera soziala eta ekonomikoa ez ziren batere egokienak langileagoaren hobetzeko nahiak asetzeko. Zera da, jakien prezioak gero eta garestiagoak ziren bitartean, lan egiteko aukerak gero eta murriztagoak ziren, langabeziarekin batera ezintasuna gizarte osoan zabalduz. Honekin lotuta zegoen eskaintza sozialaren urritasuna batez ere hezkuntza arloan, non Bilboko haur kopuru galantak ez zeukan aukerarik eskolara joateko, ezta lehengo urteetan ere.

Nahiz eta Bilboko udaletxea, II Errepublika ailegatu baino lehen, sozialisten eskuetan egon eta errepublikakoan laguntza jaso zenbait aurrerapen sozialak gauzatzeko, ez zen posiblea izan aurrerabide sozial hauek Bilboko auzokide guztiei eramatea. Bilbo, 1931. urtean, hiri industrialia eta kosmopolita zen. Erdigunean erdi-mailako burgeseria kokatuta zegoen bitartean, inguruko auzoetan hazkunde demografikoa bortitza zen langilearen etorrera zela eta. Bilboko udaletxea ez zen kapaza langile auzo hauei behar zituzten eskubide sozialak modurik hoberean ziurtatzeko, batez ere udal ondasunak kinka larrian zeudelako. Dena dela, Bilboko udaletxeak Udala Hezkuntza-Patronatua antolatu zuen udal eskolak kudeatzeko eta hezkuntza publikoaren eskaintza zabaltzeko². Modu honetan, Bilbon lehen eskola mota desberdinak kokatuta zeuden: eskola nazionalak, udal eskolak eta ikastetxe pribatuak, bai erlijiosoak bai laikoak. Hainbeste eskola motaren eskaintza izan eta Bilboko hainbat ume eskolara joan gabe behar zuten hainbat eskola publiko ez izateagatik, batez ere inguruko auzoetan. Honen zergatia? Hezkuntza eskaintza publikoa ez zen egokitu Bilboko auzo periferikoen hazkunde demografikoari. Eta hauxe izan zen lehen hezkuntzaren egoera Bilbora II Errepublika ailegatu zenean.

2.1. Errepublikaren aldarrikapena eta iraultza isila

Zenbait ikertzaileen ustez 1931ko apirilaren Espainiako udal hauteskundeak iraultza politiko isila baino ez zen izan. Erregimen politiko berri hau aldarrikatzeak gizartearen hainbat funtsezko aldaketa ekarri zituen non 1917ko Errusiako Iraultzarekin parekatu nahi baitute. Baina, Espainiako

¹ Díaz Freire, J.J. (1984). *La República y el porvenir*. Donostia: Kriseluz

² «Por la cultura y por la escuela. Patronatos escolares», *El Liberal*, 1932ko maiatzaren 11a; «Por la cultura y por la escuela. Patronatos escolares», *El Liberal*, 1932ko maiatzaren 15a; «Por la cultura y por la escuela. Patronatos escolares», *El Liberal*, 1932ko maiatzaren 28a.

II Errepublikaren ezarpena, monarkia deuseztatuz, Estatuaren lurralde guztietan modu baketsua suertatu zen, orokorrean, iskanbila handirik gertatzeko. Bilbo, ez zen salbuespen bat izan kasu honetan, eta hauteskunderen egunean hiriaren erdigunean jendea bildu zen Errepublikaren garapena antolatzeko. Bilbon, *Bloque antidinástico* koalizioa, irabazlea suertatu zen. Koalizio honek errepublikarrak, sozialistak eta *Acción Nacionalista Vasca* alderdia bildu zituen³.

Hauteskunderen hurrengo egunean, agintari berriak hasi ziren lehengo pausoak ematen. Monarkia ohiaren ikurrak eraikuntza eta esparru publiko guztietatik kentzea agindu zuten errepublikarrek, Errepublikaren bandera ez ezik, zenbait lekutan ere Ikurriña ezartzeko. Keinu hau ez zen bakarrik aurreko erregimenaren kanpoko azala zuritzeko, baizik eta gizartean birmoldaketa sakonari aurre egiteko lehengo pausoa ere izan zen⁴. Errepublikaren lehenengo egun hartan, bilbotarren artean, lasaitasuna leku guztietan erakusten zen eta udaletxetik alkateak, Ercoreca jauna, jende guztiak bakean lanari ekiteko mezuak bidaltzen zituen. Bestalde, alkatearen lehengo aginduen artean, batzuk hezkuntzarekin lotuta zeuden, esate baterako, eskola publikoetatik errega ohiaren erretratuak kenketa. Horretaz gain, Udal Hezkuntza-Patronatuaren lehendakari eta lehendakari ordearekin bildu zen, Bilboko hezkuntza arazoa konpontzeko lehengo pausoak emanez⁵.

Bitartean, Bilboko udaletxean zinegotziaren banaketa gertatu zen eta Espainiako gobernu berriak Euskal Herriko lurraldeen aldundiak eratzeko arauak antolatzen zituen, azpiegitura politiko guztiei behar dituen legeztapena adieraziz. Baina, zenbait Bizkaiko udaletxeek udal abertzaleen bilera antolatu nahi zuten Gernikan, *Euskal Errepublika* aldarrikatzeko. Bizkaiko gobernadore zibilak, Madrilgo aginduak betetzen, Gernikako alkatearekin hitz egin zuen eta aipatutako bilera bertan behera utzi zuten⁶. Beraz, Espainiako II Errepublikaren eredia orokortu egin zen lurralde guztietan, naiz eta lurralde batzuen berezitasuna babestu, estatutu desberdinak bultzatuz. Kultura eta hezkuntza mailan errepublikaren ikuspuntu zentralistak garrantzia handia zuen, batez ere hezkuntzaren metodoak eta edukiak antolatzeko orduan. Adibidez, Espainiako konstituzioak ez zuen elebitasuna onartu, baina Espainiako Gorteek hasiera-hasieratik Kataluniako Estatutua baieztatu zuten non elebitasuna oinarritzko eskubidea izan zen. Bost urte pasatu behar izan ziren Euskal Estatutua Espainiako Gorteak bozkatzeko, eta tar-

³ «España por la República», *El Liberal*, 1931ko apirilaren 14a.

⁴ Díaz Freire, J.J. (1984). *La República y el porvenir*. Donostia: Kriselu. «¡Viva la República!», *El Liberal*, 1931ko apirilaren 15a.

⁵ «Los ministros de la República trabajan sin descanso, por el bienestar de España», *El Liberal*, 1931ko apirilaren 17a.

⁶ «El reparto de baras», «El Gobierno provisional, con paso firme», «El Gobierno impide la celebración de una asamblea de alcaldes en Guernica que iba, nada menos que a proclamar la República Vasca» y «La constitución de la Diputaciones», *El Liberal*, 1931ko apirilaren 18a.

tean euskaltzaleek ahalegin eskergak egin zituzten hezkuntzara euskara ez ezik, euskal kultura ere hedatzeko⁷. Baina aritu garen kasuan, zera da, Bilboren ingurugiro kulturala, ez zen aginte publikoek behar zuen bezain bermatua izan, nahiz eta Bilboko gizartean euskal abertzaletasuna soberan hedatua egon.

1931ko ekainaren 29an Espainiako Hauteskunde orokorrak antolatzen ziren Errepublikaren erregimena boterean ziurtatuz, eta Bilbon errepublikarrak eta sozialistak, koalizio bat osatuz, garaileak suertatu ziren⁸. Behin Errepublikaren lehengo hastapenak emanda, Espainiako Gorteen eginkizunik garrantzitsuena Konstituzioa bozkatzera izan zen. Zera da, Konstituzioa zen Errepublikaren mamia erakusten zuen arautegia, eta errepublikarren nahian legedi hau Espainiako lurralde guztietan barreiatu eta ezarri behar zen eguneroko bizitza antolatzeko eredu orokor bat jarraituz.

1931ko uztailaren lehenengo astean Espainiako Gobernuak Konstituzioaren aurreproiektua plazaratu zuen. Kontutan hartzekoa da aurreproiektu hau testu tekniko bat zela, eta era berean, burututako Konstituzioa arautegi politiko bat izango zela. Dena dela aurreproiektu honetan, Konstituzioaren kutxu federala ez zegoen batere argi eta hezkuntzaren arloan zenbait kontrastan agertzen ziren. Adibidez, Estatuaren behartuta zegoen, aurreproiektu honen arabera, heziketa erlijiosoa ematera. Modu honetan ez zen posiblea izan hezkuntza laikoa. Aldi berean, Estatua lurralde autonomoi hezkuntzaren orientabideak transferitzeko kapaza zela, baina aurreproiektu honen 30. artikulua hitzez, kultura nazionalaren zerbitzua bakarrik Estatuak bete dezake⁹.

Dena dela, eta sortzen ari den kezka soziala baretzeko, 1931ko abuztuaren hasieran Heziketa Publikoaren Ministroak, Marcelino Domingo, bere kontseilariei eskatu zien lehen bait lehen, berrogei egunen barru, *Hezkuntza Nazional*-aren aurreproiektu bat berari aurkezteko eta Gorteetan eztabaidatzeko¹⁰. Baina aurreproiektu hau ez zen burutu, bildu behar zituen arauak Konstituzioetan garatzen zirelako.

Behin Espainiako Konstituzioa Gorteetan onartuta, euskal, katalan- eta federal gutxiengoak zuzenketa aurkeztu zuen zenbait artikulua birmoldatzeko, hauen artean 10.artikulua, lurraldeen kompetentzien buruz aritzen dena. Artikulu honen arabera, lehengo puntuan, hezkuntzaren programa eta edukiek Espainiako legedi orokorraren oinarritzko adierazpenak bete behar zituzten¹¹. Horren ondorioz, lurralde bakoitzak derrigortuta zeuden Espai-

⁷ «Una opinión sobre el Estatuto. Yo, republicano estatutista», *El Liberal*, 1931ko ekainaren 23a.

⁸ «Hacia las cortes constituyentes», *El Liberal*, 1931ko ekainaren 30a.

⁹ «El proyecto de Constitución», *El Liberal*, 1931ko uztailaren 8a.

¹⁰ «El Ministro de Instrucción pide congruencia una ley de Instrucción pública», *El Liberal*, 1931ko abuztuaren 8a.

¹¹ «La Nueva Constitución del Estado Español», *El Liberal*, 1931ko abuztuaren 28a.

niako Gobernuaren hezkuntza-politika jarraitzeko, lurralde bakoitzaren be-
rezitasunak alde batera utzita. Gauzak horrela, Bilboko udaletxeak Errepu-
blikaren Konstituzioan islatzen zen hezkuntza-sistema ezarri egin zuen
hiri honetan kokatuta zeuden eskola publiko guztietan.

2.2. Errepublikaren hezkuntza teoria

Errepublikaren auzi teorikoan hezkuntza ezinbesteko ardatza zen. Hezkuntza gizarte osasuntsu baten zutabea zen gerorako gizonen kontzientzia txiki-txikitatik eratzeko. Horregatik, Errepublikaren propagandan hezkuntzaren auzia beti pil-pilean agertzen zaigu. Adibidez, 1931. urtearen udal hauteskundeetara joateko mezuak egunkari ezkertiarren artean nahiko ugariak ziren eta artikulu hauetan monarkiaren aurka bozkatzeko arrazoiak erakutsi zituzten hautesleen erraiak astintzeko. Beraz, errepublikarrek hezkuntzaren zioa erabiltzen zuten jendearen grina suspertzeko, proletalgoaren aurkako monarkiaren ekimenak adieraziz. Esate baterako, *El Liberal* egunkarian argi azaltzen zen honako hau: *erret erregimenak ez du eskola berririk egin eta bakarrik goi mailakoek heziketa jasotzea nahi du, posiblea bada katekismoan oinarrituta*¹².

Eta hona hemen Errepublikaren hezkuntzari dagokion gakoa, erret erregimenaren hezkuntza oinarriak suntsitu, hezkuntza sistema berri bat osatzeko. Errepublikaren aldeko pedagogo batzuek *Eskola bakarra*-ren erredua proposatzen zuten hezkuntza sistema berria errotik eraikitzeko. *Eskola bakarra* honetan umetxoak 3 urteekin sartuko zirela 17 urte bete arte, zera da, unibertsitatera joan arte. Modu honetan lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan suertatzen ziren kontrastakunak saihesten ziren¹³. Adibidez, lehen hezkuntzara 6 eta 13 urteren arteko umeak joaten ziren eta bigarren hezkuntzara 10 eta 16 urteren artekoak. Zera da, bigarren hezkuntzara joateko lehen hezkuntzaren ikasketak ikasleek bertan behera utzi behar zituzten. Eta dena guztiz horretaz gain, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzaren edukiak ez ziren parekatuta. *Eskola bakarra*-ren ideiak Madrilgo Institutu-Eskolara eraman zituzten eta Bilbon, behin Errepublika ezarrita, udaletxeak Institutu-Eskola bat antolatzen ahalegindu zuen.

Konstituzioaren aurreproiektua eratzen zen bitartean, ezkertiarren egunkarietan zenbait artikuluak Errepublikaren betebeharrak aztertuz hasi ziren agertzen, eta zenbait kasutan, hezkuntza arloan. Teoriko hauen uste-tan, Errepublikak *Hezkuntza* berreskuratu behar zuen, monarkiaren garaian erlijio ordeenetan lagata. Horretaz aparte, Errepublikak ezin zuen ere auto-

¹² «¡A votar!», *El Liberal*, 1931ko apirilaren 12a.

¹³ «La Escuela única sustituyendo a los institutos. Imposición del ambiente educativo escolar», *El Liberal*, 1931ko urriaren 9a.

nomien eskuetan hezkuntza sistema utzi. Kasu honetan, autonomien egin-kizuna eta betebeharra Estatuaren hezkuntza sistema osatzea baino ez zen izan, lurralde bakoitzaren berezitasunak landuz, Gorteek bozkatutako plangintza baten barruan, Hezkuntzaren Ministerioaren ikuskapenaren menpean. Ahala ere, Errepublikak ez zuen saihestu behar ama-hizkuntzak edo lurraldeen berezitasunen irakaskuntza, baina eduki hauek hezkuntza plangintza orokor batean jokatu behar ziren, Espainiako batasun kulturala adieraziz¹⁴.

Behin Errepublikako Konstituzioa eta Kataluniako Estatutua Gorteetan onartuak, hezkuntza zela eta, zenbait iritzi kritikoak altxatu ziren. Gorteek, 1931ko urriaren 21ean, lurralde autonomoei hezkuntza konpetentzia transferitzea onartu zuten. Eta Konstituzioaren 48. artikulua arabera, lurralde autonomoek hezkuntza antola zezaketen tokiko ama-hizkuntzetan, nahiz eta derrigortuta izan lehen eta bigarren hezkuntzan gaztelera irakasteko. Batzuen ustez Espainiako Estatuak autonomiei botererik garrantzitsuen eman zien, hezkuntza¹⁵.

Eta Errepublikaren hezkuntza ereduan maisuak ezinbesteko papera bete behar zuen. Errepublikaren hezkuntza teorian demokraziarako oinarriak eskolan ikasi behar ziren, hori dela eta, maisua demokraziaren lagunik onena zen. Ezinezkoa zen demokrazian bizitzea, aldezturik oinarri demokratikoak eskolan saiatu eta ikasi gabe. Hau kontutan hartuta, maisua zen kolektibitatearen langilerik interesgarriena, eta erdua izan behar zen hiritar guztientzat. Azken finean, hezkuntzaren helburua haurtzaroan kontzientziak eraikitzea zen, gizabanakoek bere gizartea eratzeko. Honekin lotuta, hezkuntza integrala izan behar zen eta gorputz eta arimaren higieena elkarrekin joan behar zirela. Helburu hau eskuratzeko maisuek elkar laguntzaren espiritua eta solidaritatea landu behar zituzten eskolan¹⁶.

Eta Errepublikaren hezkuntza teoriaren gaineko begirada hau bukatzeko, aipatzekoa da gizarteak arlo honetan espero behar zuena, ezkertiar teorikoen uztez. Zera da, Errepublikak umeari merezi duen garrantzi osoa eman behar zitzaion, segun eta nolakoa izan umeez jasotako tratua, halakoa izango zelakoan herrien etorkizuna¹⁷. Eta umeen garrantzia azpimarratzeko Errepublika hasi zen *Umeen eguna* antolatzen, eskoletan ez ezik esparru publikoetan ere ekitaldiak prestatuz. Beraz, gizarte berrian umeen lekua aldarrikatzen zen, guztiek haurtzaroaren garrantziaz jabetzeko.

¹⁴ «La Enseñanza, función del Estado», *El Liberal*, 1931ko urriaren 13a.

¹⁵ «La enseñanza debe ser privativa del Estado sin que se merme en lo más mínimo la soberanía de éste», *El Liberal*, 1931ko urriaren 24a.

¹⁶ «De instrucción pública. Imprescindible cooperación del Magisterio y el Pueblo», *El Liberal*, 1931ko urriaren 29a.

¹⁷ «La Fiesta del Niño», *El Liberal*, 1931ko urriaren 31a.

2.3. Bilboko hezkuntzaren beharrak, udaletxearen lehengo pausoak

Errepublikaren Gobernuan bilbotar batek parte hartu zuen, bi ministerio lehendakaritza eraman zituelarik. Politiko hau Indalecio Prieto zen, eta Ondasunaren Ministroa izateaz gain, Sustapenaren Ministroa ere izan zen. Bilboko udaletxeak ondo zekiten Prietoren laguntza ezinbestekoa zela hiri honen hezkuntzaren birmoldaketa eratzeko. Gauzak horrela, kontutan hartzekoa da 1931ko irailean, Hezkuntza Publikoaren Ministroa, Marcelino Domingo, Bilbora joan zenean, Prieto ere berekin joan zen, Ondasunaren Ministroaren paperean. Nahiz eta Bilboko hezkuntza egoera nahiko larria izan, ministroen bisitaren helburu bakarra Institutu-Eskola eraikitzea baino ez zen izan. Ez zuten eskolak berriak eraikitzeko dirulaguntzaz, edota txarto zeuden eskolen birmoldaketaz aritzen. Institutu-Eskola Errepublikaren hezkuntza sistemaren ikurra zelakoan, Gobernuen politikariek eta udaletxeak asuntxo horretaz bakarrik aritu ziren, batez ere, non eta nola eraiki. Lekua, Bidartearen landetan, Deustua auzoan, eta Gobernuak gastuen erdia ordainduko luke¹⁸.

Ez zen aste bete bat pasa Ministroen bisitatik eta Bilboko egunkari kontserbadoreetan hiri honen hezkuntzaren arazoak hasi ziren arduratzen. Dirudienez enpresa pribatu batek, *Sres. Calvo Hermanos*, proposatu zuen udaletxeari akordio bat hogeit hamar eskola eraikitzeko. Modu honetan oinarri tinko bat ezarriko zela behin betirako hezkuntzaren auzia konpontzeko. Udaletxeak onartu zuten enpresa honen proposamena aztertzea¹⁹.

Dena dela, Bilboko hezkuntzaren auzia hain egoera larrian sartu zen non alkateak dei publiko bat egin zuen hiritarren laguntza eskuratzeko eskolako arazoa konpontzeko. Bilboko hezkuntzaren eskaintza ez zen nahikoa umetxo guztiei behar zuten lekua emateko. Alkatearen hitzez bukatutzat eman zituen antzinako eskolen birmoldaketa eta auzo eskola ziztrinen eraikuntza. Beraz, konponbide bakar-bakarra eskolak berriak eraikitzea zen, hainbat eta non beharrezkoak ziren²⁰. Gauzak horrela ez zen harriztekoa zinegotzi errepublikar batzuek eskatzea Bilboko udaletxeak zerga berezi bat biltzeko hiri honetako hezkuntzaren beharrak betetzeko ez ezik, umetxoaren babesa ofiziala ere ziurtatzeko²¹.

Nahiz eta hezkuntzaren egoera erreza ez izan, Bilboko udaletxeak eskolen eskaintza zabaltzen ahalegintzen zen. Adibidez, irailaren 25aren se-

¹⁸ «Estancia de los ministros de Instrucción Pública y Hacienda. Reuniones importantes en el Instituto Vizcaíno y en la Sociedad El Sitio. Visita a la Finca Vidarte de Deusto, donde se proyecta instalar un Instituto-Escuela», *El Liberal*, 1931ko irailaren 6a; «La fundación del Instituto-Escuela», *El Liberal*, 1931ko irailaren 11a.

¹⁹ «Soluciones al problema escolar», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 17a. «Construcciones escolares», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 22a.

²⁰ «El problema escolar de Bilbao», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 20a.

²¹ «¿Una tributación local para Instrucción Pública?», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 20a.

sioan, Hezkuntza Publikoaren Udal Batzordeak honako puntu hauetaz eztabaidatu zuen: neskentzako eskola berri bat Tiboli auzoan zabaltzea; bi lokalak alokatzea eskolak eratzeko; bi proposamenak eskola berriak Rekaldeberri eta Enekuri auzoetan eraikitzeke; eta azkena, eskola publikoetan euskararen ezarpena²².

Aldi berean, Bilboko alkatearen deia hasi zen fruituak ematen, eta 1931ko azaroaren lehengo astean, alkateak La Casilla-ren Kuartelen zati bat udal eskola publiko bat eraikitzeke jaso zuen²³.

Baina Bilboko hezkuntzaren auzian ez zen bakarrik islatzen ikasleentzako eskolaren falta, irakasleagoaren eza ere. Eta eskolek behar zituzten maisuak izendatzeko Bilboko udaletxeak lehiaketa publiko bat antolatu zuen. Ahala eta guztiz ere, eskuratutako lanpostua ez zen behin betirako, behin behineko baizik. Behin betirako plaza bat berenganatzeko, maisuek udaletxeak antolatzen zituen oposaketak gainditu behar zituzten²⁴.

1931ko abenduaren hasieran Bilboko Hezkuntza Publikoaren Udal Batzordearen komisio bat Madrilera joan zen eta Hezkuntza Publikoaren Ministerioarekin bilera bat izan zuen. Ministroak bilbotarrei laguntza eskaini zien Ministerioaren hezkuntza plangintza zabaltzeko eta Batzordearen lana errazteko. Nola? Bartzelonan eratu zuten Kultura-Patronatuaren antzeko bat Bilbon eratz²⁵.

2.4. Elebitasunaren auzia Bilbon

Errepublikaren Gobernuak Elebitasunari buruzko Dekretua bozkatu zuen, baina dekretu honen ezarpena bakarrik Katalunian onartu zen. Neurri linguistiko hau ikusita, maiatzaren lehenengo astean, *La Agrupación de Cultura Vasca*-k gutun bat Hezkuntza Publikoaren Ministroari bidaltzea erabaki zuen. Kultura-elkarte honek dekretu hau onartzen zuen, berdintasunaren printzipioak aldarrikatzen zituelako. Ahatik, ezin zuen onartzen dekretu hau Euskal Herrian ezartzen ez zelako. Elkarte honen ustetan, Euskal Herriko auzi linguistikoa nahiko sutua zen eta ezinbestekoa zen dekretu honen ezarpena egoera normalizatzeko. Adibidez, Frantses Estatuak euskararen erabilera onartzen zen eskoletan, lehen hezkuntzan funtsezko ahalbidea delakoan. Honekin konparatuz, Espainian, euskarak jazarpen ofiziala jaso zuen, hezkuntza pribatuan euskararen irakaskuntza debekatuta zegoen eta umeez euskaraz hitz egiteagatik zigorrak jasotzen zituzten. Bukatzeko, *La Agrupación de Cultura Vasca* elkarteak eskatu zuen ministroari ama-hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Kontutan hartzekoa zen, kultu-

²² «La labor de Instrucción Pública», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 25a.

²³ «La cesión de un edificio para escuelas», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko azaroaren 5a.

²⁴ «Los maestros interinos», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko azaroaren 11a.

²⁵ «En Bilbao se creará un Patronato de Cultura», *El Liberal*, 1931ko abenduaren 4a.

ra-elkarte honen uztez, herri ikasietan honako printzipio pedagogiko hau ezartzen zuten: *lehen hezkuntza, eraginkorra izateko, ama-hizkuntzan eman behar da, eta printzipio honi aurrera eramateko, justizia ez ezik, berdintasuna ere eskatzen da*²⁶.

Ildo honetan jarraituz, beste kultura-elkarte euskaltzale batek, *La Federación de Acción Popular Euskerística*, Ministeriori beste idazki bat bidali zion eskaera berdina azalduz, lehen bait lehen Katalunian ezarritako dekretuan Euskal Herrian zabaltzeko. Eta elkarte honek ministroari galdetu zion ez ote zen beldur behin Euskal Estatutua Gorteetan bozkatuta, hezkuntza-ren arloan Bizkaian gerta daitekeenaz²⁷.

Euskararen irakaskuntza aurkako ekimenak jarraitu arren, Bilboko udaletxeak, 1931ko irailean, *Euskararen Jakintza Agiriak* maisuek eskuratzeko azterketak antolatu zituen²⁸. Eta irailaren 24an, Bilboko udal-txearen gutxiengo abertzaleak, Sabino Arana jauna liderra izanik, euskararen irakaskuntza eskola publiko guztietan eskatu zuen²⁹.

Baina Bilboko ahots guztiak ez zeuden ados elebitasuna hezkuntza publikoan ezartzeko. Adibidez, Miguel de Unamunoren ustez Espainiak inposatu behar zuen hiritar guztiak gaztelaren ezaguera, horregatik elebitasuna ez zuen inposatu behar herri xehea *sinplea* zelak³⁰. Aldi berean, *El Liberal* egunkarian, Bilboko edizioan, zenbait artikuluak agertzen ziren Kataluniako egoera linguistiko berria salatuz. Artikulu hauen egileen arabera, hezkuntza arma oso boteretsua zen Estatuaren eskuetan, baino are eta arriskutsuagoa lurralde eskuetan. Zergatik? Lurraldeetan erabiltzen bazen ama-hizkuntza, gaztelera alde batera utzita, honen eraginak honako hauek izango litzateke: lurraldeen garapena mugatzea ez ezik txikiagotzea ere, eta honekin batera Espainiako kultura orokorrari hiltzeko kolpea jotzea³¹.

3. LEHEN HEZKUNTZAREN BIRMOLDAKETA BILBON, LEHENENGO HASTAPENAK 1932. URTEAN

Errepublikaren hezkuntza teoria ezartzeko modurik trinko batean 1932. urtea unerik egokiena izan zen. Erregimenaren lehengo pausoak behin emanda ekintza politikoari gogor eutsi behar zioten errepublikarrek eta Espainiako gizartearen beste esparruetan bezala gauzak ez ziren errazak bir-

²⁶ «El Decreto sobre bilingüismo y La Agrupación de Cultura Vasca», *El Liberal*, 1931ko maiatzaren 7a.

²⁷ «El Bilingüismo escolar», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko abuztuaren 11a.

²⁸ «El conocimiento del Euskera», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 8a.

²⁹ «La labor de Instrucción Pública», *El Noticiero Bilbaíno*, 1931ko irailaren 25a.

³⁰ «Bilingüe, trilingüe, o políglota», *El Liberal*, 1931ko uztailaren 21a.

³¹ «La enseñanza oficial en España no debe darse más que en español», *El Liberal*, 1931ko urriaren 23a.

moldatzeko. Espainiako hezkuntzaren barneko tirabirak gizarte konplexu baten isla baino ez ziren izan. Alde batetik, talde kontserbadoreek eskolara erlijioaren ideiak eraman nahi zituzten, bestetik lurralde edo autonomia bakoitzak berezko ezaugarriak ere eskolan irakatsi nahi zituzten. Bilbon, aipatutako bi korrante hauek elkartu ziren bitartean, hiri honen udaletxeak bete behar zuen Estutuaren hezkuntzaren politika. Eta noski, ezin dugu ahaztu behar Bilbon suertatzen zen hezkuntzaren arazo larria.

3.1. Bilboko hezkuntza arazoa eta Errepublikaren oinarri teorikoak

Errepublikaren lehenengo urtemuga heltzeko zorian zegoen, eta Lehen Hezkuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren buruak, Rodolfo Llopi, zirkular bat presatu zuen Errepublikaren hezkuntza adierazpen guztiak erakutsiz. Hasteko, Konstituzioa bozkatua berria zegoen eta hori zela eta beharrekoa zen Konstituzioaren zenbait ale eskola guztietara eramatea maisuek ikasgai desberdinak prestatuz arategi berri honen esanahia umetxoei azaltzeko. Bestetik, Llopi jaunaren hitzez, maisua hezitzaile izan behar zen, umearen izaera aztertuz bere autonomia aske eskuratzeko. Eskolari dagokionez, erakunde hau birmoldatzeko, gaurkotu behar zen. Eskola bizirik mantendu behar zen, lan egiteko lekua, non umeak lanaren bidez bizi zen gizartearen balioaz kontzientzia hartu. Baina eskola herriarekin lotzen behar zen, herriko bizitzaren ardatza bilakatuz eta bizi zen gizartearen baloreak gurasoen partaidetzarekin umetxoari erakutsiz. Eta bukatzeko, Konstituzioaren 48. artikulua araberak, eskola laika izan behar zen propaganda politikoa eta erlijioso guztia zeharo galarazita izanik.

Zera da, eskola esparru neutral bat izan behar zen non umea bizi, hezi eta garatu aurreiritzi politiko edo erlijiosoak jasan gabe. Azken finean, eskola guztiona zen eta guztientzat ere izan behar zen. Ahala eta guztiz ere, Llopi jaunaren hitzak ez ziren betetzen Bilboko zenbait eskoletan. Adibidez, maisu batzuek ez zituzten ikasgeletatik monarkiaren ikurrak kendu, eta erret erregimena goraiatzeko zen liburuak erabiltzen zituzten³².

1932ko martxoan, Errepublikaren lehengo urtemuga ailegatzeaz zegoenean, *El Liberal* egunkarian hasi ziren hezkuntzari buruzko sekzio berri bat argitaratzen. Sekzio honen izenburua, *Por la cultura y por la escuela*, nahiko adierazgarria izan zen *kultura* eta *eskola* hitzak lotuz. Azken finean, kulturaren bidez bakarrik gizonak boterea eskura zezakeen, etorkizunaren argia ikusiz. Eta zein izan zen tresna kultura hau lortzeko? Eskola. Kultur espainiarraren betiko eza gainditzea eskolaren eskuetan zegoen kultur moderno batera jotzeko³³.

³² «La escuela en la República», *El Liberal*, 1932ko urtarrilaren 15a.

³³ «Por la cultura y por la escuela», *El Liberal*, 1932ko martxoaren 31a.

1932ko apirilaren 7an, *El Liberal* egunkarian Errepublikaren lehengo urtemugaren balantzea, hezkuntzari zegokionez, agertu zen. Zera da, Errepublika boterera ailegatu zen eginbearra honako hau izan zen: hezkuntzaren auzia konpontzea. Irteera ez zen batez ere erreza eta arazo honen jatorrian ezjakintasuna baino ez zegoen. Honekin lotuta azpiegituraren birmoldaketa beharrezkoa izan zen. Hasteko, monarkiak eraiki ez zituzten eskola berriak egiteko beharrean zegoen Errepublika. Bestetik, ez zen bakarrik eskola berriak zabaltzea, baizik eta hezkuntzari espiritu berria ematea. Eta espiritu berri honekin maisuen auzia lotuta zegoen. Errepublikarrek ere maisuen egoera hasi ziren bermatzen, maisuen lan kategoria goi mailako batera altxatuz eta irakasle eskolaren ikasketak birmoldatuz. *El Liberal*-aren kazetariak azpimarratzen zituen, hezkuntzaren arloan, Errepublikaren lanak espainiar guztien esker onak merezi zituela. Azken finean, hezkuntzan ez zen bakarrik Errepublikaren eduki ideologiko neurririk handiena islatzen, baizik eta zentzu historiko handiena ere³⁴.

Baina hezkuntza mailan Errepublikaren ekimenak ez ziren guztientzat eskertzeak. Nahiz eta eskola laikoaren ezarpena Konstituzioan onartuta izan, herriaren mentalitatera laikotasun hau ez zen ailegatu. Adibidez, 1932ko apirilean, Bilbon hasi ziren jaunartzeak antolatzen, eta zenbait kasuetan agerian zegoen gurasoek, maisuek edota apaizek umeen kontzientziaren adierazpenari ez ziotela inolako begirunea erakusten³⁵.

Bilbon ere Errepublikaren urtemuga antolatu zen, manifestaldian umeek ere parte hartu zutelarik. Baina kasu honetan errepublikarren artean kritikak agertu ziren. Manifestaldi honetan ume batzuek pankartak eramaten zituzten *Eskola laikoa* eta *Eskola bakarra* eskatuz, baina haur hauen ahulezia fisikoak eta haien arropa ziztrinek batzuen kontzientzia astindu zuten. Hori ikusita, batek baino gehiagok esan zuen beharrezkoa zela ere eskolako jatetxeak, arropa, oinetakoak eta gela higienikoak eskatzea, baina agintariek ez zuten inolako ahaleginik egiten eskaintza hau handitzeko ezta gurasoek ere ez zuten horretaz arduratu nahi. Kritiko hauen ustez, guraso hauek burgeseriaren ongintzazko ekintzak kontutan hartu behar zituzten langileriaren seme-alabei laguntza materiala eta morala emateko. Asunto zera izan zen: laguntza honen medioz proletalgoaren hurrengo belaunaldiak prest egotea lanari gogor eusteko sistema kapitalistaren oinarriak sustatuz eta mantenduz burgeseriak ziurtatzen zuen³⁶.

Eta errepublikarrek erregimen politiko berriaren lehengo urtemuga antolatzen zuten bitartean, haien hezkuntza politikoaren onurak instituzio guztietan aldarrikatuz eta komunikabideetan politika honen eragina barreiatuz, Bilboko hezkuntza erronka ez zen batere ez baretu. Hezkuntza ar-

³⁴ «Por la cultura y por la escuela. La escuela en la República», *El Liberal*, 1932ko apirilaren 7a.

³⁵ «De enseñanza. La personalidad del niño», *El Liberal*, 1932ko apirilaren 15a.

³⁶ «De enseñanza», *El Liberal*, 1932ko apirilaren 27a.

loan, ezinezkoa zen Bilboko indar politikoek haien arteko tirabirak alde batera uztea, batez ere Konstituzioaren 26. artikulua hasi zenean betetzen. Artikulu honek hezkuntzaren askatasuna bermatzen zuen, zera da, eskola laikoa izan behar zen eta horren ondorioz kongregazio erlijiosoei galarazi zieten irakaskuntzan aritzea. Gobernuaren ekintza politiko hau ez zen bakarrik politika antiklerikal batean kokatu behar, erlijioari zama politika guztia kenduz. Eskola laikoaren esanahia askoz zabalagoa zen, eta bere helbururik nagusia hurrengo belaunaldien mentalitatea eratztea zen erregimen kontserbadorearen sustraiak errotik deuseztatzeko³⁷.

Bilbon ere Gobernuak Konstituzioaren 26. artikulua betetzeari ekin zioten. 1932ko otsailean, Lehen Hezkuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren burua, Rodolfo Llopis, Bilbora bisita bat egiten zuelarik, Bilboko alkateari hiri honetako jesulagunen ikastetxeak bi egunen barru konfiskatuko zituztela ziurtatu zion. Eraikuntza haien artean Deustuko Unibertsitatea eta Indautxuko Ikastetxea zeuden, eta udaletxekoen ustetan Indautxuko Ikastetxea lekuri proposena zen Institutu-Eskola berria ezartzeko. Horrela bazen, Deustua auzoan eraikitzeko Institutu-Eskola berriaren proiektua bertan behera utzi zuten. Nola ezetz, ikastetxeen konfiskazioak Bilboko talde kontserbadoreen protestak suspertu zituen, Areilza jaunak eramanda. Eta Rodolfo Llopis Madrilera bueltatu zenean, kazetariei Bilboko egonaldiarekin oso pozik zegoela adierazi zion, batez ere hiri honetako hezkuntza egoerarekin eta arlo honetan maisuek egindako lanarekin³⁸. Ez da ahaztu behar, Errepublikaren bastioien artean Bilbok ezinbesteko garrantzia zuen.

Nahiz eta Lehen Hezkuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren buruaren hitzek Bilboko hezkuntzaren egoera goraiatu, errealitatea ez zen bilbotar guztientzat hain aurrerakoia izan. Errepublikarren komunikabideetan hezkuntzaren gabezien berriak tantaka agertzen ziren bitartean, kontserbadoreen egunkarietan maiz salatzen zuten Bilboko irakaskuntzaren larritasuna, batez ere lehen hezkuntzan. Adibidez, sarritan auzo eskolen auziaz aritzen ziren, bereziki auzo marjinalen gabeziak agerian azalduz. Kontserbadoreen ustetan udaletxekoen hezkuntza politikoak, ikastetxe integralak antolatuz, auzo haur eskolaren suntsimena zekarren. Zera da, eskola mota hauek maiz esku pribatuetan zeuden, udaletxearen dirulaguntza jasotzen zutelarik. Baina eskola integralak zabaltzen ziren neurrian, udaletxeak dirulaguntza hau emateari utzi zion, haur eskola hauek ixteko beharrean. Gu-

³⁷ «Por la cultura y por la escuela. El artículo 26», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 5a; «Por la cultura y por la escuela. El artículo 26 II», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 14a; «Por la cultura y por la escuela. El artículo 26 III», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 25a.

³⁸ «El problema de la enseñanza en Vizcaya. Importantes manifestaciones de D. Rodolfo Llopis», *El Liberal*, 1932ko otsailaren 3a; «La incautación por el Estado del colegio de Indauchu y los estudios en Deusto», *El Liberal*, 1932ko otsailaren 5a; «El Sr. Abaunza en los colegios de Indauchu y Deusto», *El Liberal*, 1932ko otsailaren 6a; «Lo que ha dicho el Sr. Llopis a su regreso de Bilbao», *El Liberal*, 1932ko otsailaren 11a.

rasoak kexatu egin zuten umeak txikitxoegiak zirelako eskolak integraletara haiek bakarrik joateko, etxetik nahiko urrun daudelako adieraziz. Baina kezka hauek udaletxeek ez zituzten ontzat eman³⁹.

Zenbait auzo eskolak ere kontserbadoreek antzinako erregimen politikoaren ikurrak mantentzeko guneak izan ziren. Nahiz eta Bizkaiko eta Bilboko botere politikoen monarkia eta erlijioaren sinboloak eskolatik kentzeko agindu, neurri hauek ez ziren eskola guztietan bete. Horrela bazen Bizkaiko Hezkuntza Batzordeak, 1932ko otsailaren 27an, zirkular bat zabaldu zuen auzo eskoletan laikotasuna ezartzeko eta ikur erlijiosoak ikastetxe hauetatik kentzeko. Behin arau hau emanda, *Asociación Católica de Padres de Familia de Vizcaya*-ren bozeramaleak Aldundira jo ziren zirkular honen ezabapena eskatzera. Talde honen hitzez, bere eskaeran Bizkaiko auzokide gehiengoaren iritzia defenditzen zuten⁴⁰.

Honekin lotuta, Begoñako auzo eskoletan istilu txiki bat sortu zen. Zenbait umetxoek ez zuten klasera sartu nahi klaseetatik gurutzeak kendu zituztelako udaletxearen aginduak betetzeko. Maisuek lanera ekiten zioten bitartean, ume kopuru galanta amekin kanpoan geratu ziren, gurutzeen kenketaren aurka kexa eginik. Eta udaltzainen txostenean azpimarratzen zen kanpoan geratu ziren ume asko ez zuen klasera sartu nahi gurasoen errepresaliak ez jasotzeko⁴¹.

Bilboko lehen hezkuntzaren erronka erlijiosoa ez zen konpondu eta *El Liberal* egunkarian behin baino gehiagotan azaldu ziren ikastetxe publikoetatik ikur erlijiosoren kenketaren aurkako saialdiak. Aldi berean, zenbait ikastetxetan, Aldundiak eta Bilboko udaletxeak subentzionatuta, errepublikaren aurkako ekimenak salatzen zituzten. Esate baterako, titulu gabeko erlijiosoek klaseak ematea, erlijioaren edukiak irakastea eta umetxoei meza egunero entzutera derrigortzea⁴².

Baina Bilboko umeen auzia ez zen bakarrik eskoletan kokatu. Behin baino gehiagotan egunkari kontserbadoreetatik salatzen zuten Bilboko haurtzaroaren egoera eta portaera eguneroko klaseak bukatu ondoren. Ume batzuen bihurrikeriek ez zuten inolako toperik: denden kristalak apurtu, tranbia eta kotxetatik martxan igo eta jaitsi, helduei kalean behaztopatu... Ikastetxetik irtenda, umeek Bilboko kaleak betetzen zituzten, inguru auzoetatik hiri erdigunera eta portu aldera ailegatuz. Arazo hau konpontzeko irtenbideak? Kazetarien ustez, gurasoen arreta gehiago jarri behar; udal-

³⁹ «La enseñanza en Recaldeberri», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko otsailaren 11a; «Pequeño conflicto», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko apirilaren 10a.

⁴⁰ «El laicismo en las escuelas de barriada», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko martxoaren 19a.

⁴¹ «Niños que no entran en clase», *El Liberal*, 1932ko urtarrilaren 23a.

⁴² «De enseñanza. Como abusan de la inocencia de los niños», *El Liberal*, 1932ko apirilaren 8a; «Enemigos encubiertos de la República», *El Liberal*, 1932ko maiatzaren 7a; «¡Pimpampum!», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 5a.

tzainak alkatearen ordenak jaso umeen maltzurkeriak gogor zigortzeko; maisuek eskoletan irmoki aholkatu umetxoei bidezko portaera izateko; eta udaletxeak leku aproposa antolatu umeei kaleko kalteetatik babesteko⁴³.

Nahiz eta Bilboko lehen hezkuntzaren birmoldaketaren etsaiek ez etsi, hiri honen udaletxeak buruz belarri aritzen zen hezkuntza plangintza orokor bat eratzeko. Proiektu honen helbururik nagusienetariko bat eskola integral berriak eraikitzea izan zen. Lehenengo unean, udaletxearen ekin-tzak antzinako eraikuntza zibiletan edo militarretan eskolak eratzera zuzenduta zeuden. Modu honetan, Atxuriko antzinako egoitza eta La Casilla-ko kuartelak birmoldatu zituzten eskolak zabaltzeko⁴⁴.

Baina antzinako eraikinen birmoldaketa ez zen nahikoa eta eskola integral berri bat eraikitzeko nahian, 1932ko apirilaren 19an, Bilboko alkateak San Frantzisko-ko Ikastetxearen lanen hasiera aurkeztu zuen. Egunkari kontserbadoreen uztez, eraikuntza hau ez zen hezkuntza plangintza orokor batean kokatuta, baizik eta momentuzko neurri bat baino ez zen izan. Ez zen ahaztu behar, Bilboko udaletxeak jaso zuela lau milioi pezeta laguntza moduan hezkuntza plangintza hau burutzeko, eta lehengo urterokoa jaso berria zegoen. Gauzak horrela, zenbaiten ustetan, garaia zen hezkuntza plangintza orokor hau eratzeko eta publikoari erakusteko⁴⁵.

Uda ailegatu bezain laster, Bilboko udaletxeak 1932-33ko ikasturtearen antolaketa hasi zen prestatzen. Alde batetik, Bilboko benetako hezkuntza beharra jakiteko eta ikasleen banaketa errazteko, ekainaren amaieran eskola publikoetara matrikula zabaldu zen. Dena dela, deialdi honen erantzuna ez zen udaletxekoen espero zuena eta uztailaren bukaeran gurasoei gogoratu zien berriro matrikula egin behar zutela⁴⁶. Honekin lotuta, Udal Hezkuntza-Patronatuak 1932ko irailean berriz antolatu zuten lehiaketa publikoa bitarteko irakasle taldea osatzeko hezkuntza publikoa hornitzeko⁴⁷.

Komunikabide errepublikarretatik Udal Hezkuntza-Patronatuaren lana goraiatzeko zuten bitartean, prentsa abertzalean kritikak zorrotzak agertzen ziren. Adibidez, *El Liberal* egunkarian, Espainiako eskola nazionalaren arazoa

⁴³ «Los chicos de la escuela», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko apirilaren 2a; «¡Esos chiquillos!», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko apirilaren 9a; «Protección a la infancia», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko maiatzaren 20a; «Otra misión de la escuela», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko uztailaren 3a; «Los otros niños», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko ekainaren 26a.

⁴⁴ «La construcción de nuevas escuelas», *El Liberal*, 1932ko otsailaren 25a; «Las nuevas escuelas de Achuri», *El Liberal*, 1932ko martxoaren 6a; «Las nuevas escuelas de Achuri», *El Liberal*, 1932ko martxoaren 8a; «Obras en las escuelas», *El Liberal*, 1932ko martxoaren 24a; «Nuevas escuelas», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko martxoaren 30a.

⁴⁵ «El plan escolar», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko apirilaren 20a.

⁴⁶ «La matrícula y las becas», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko ekainaren 28a; «Matrícula y oposiciones. Cuestiones de Enseñanza», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 28a; «La matrícula para las escuelas públicas», *El Liberal*, 1932ko uztailaren 28a.

⁴⁷ «El Patronato escolar y de cultura. Concurso público», *El Liberal*, 1932ko irailaren 3a.

aztertuz, Bilboko egoera salbuespen bat zela adierazi zuten, *aspaldidanik Udal Hezkuntza-Patronatuak Bilboko eskolak zoragarri antolatuta zitu-lako*⁴⁸. Berriz, *Euzkadi* egunkarian, urriaren 2an, Bilboko hezkuntzaren antolaketa kritikatzeko zuten, batez ere, udaletxearen ekintzak lehen hezkuntzan. Zera da, udaletxeak eskola integral batzuk eraikitzearekin batera, auzo eskolak aparte utzi zuen. Udal Hezkuntza Batzordearen buruak, Eulogio Urrejola, *El Liberal* egunkarian idazki bat aurkeztu zuen, Bilboko udaletxearen hezkuntza-politika defendatuz. Hasteko, Udal Hezkuntza-Patronatuaren erabakiak elkarte honen kide guztien baimenarekin bozkatu ziren, eta talde honen partaideak gutxiengo abertzalea zen ere. Urrejola jaunaren ustez, Udal Hezkuntza-Patronatuak aurkitu zuen hasierako egoera hobetuz zihoan, kasu, eskolaren eskaintza handiagoa izateaz gain, hezkuntza birmoldaketa plangintza bat eratu ez ezik irakasleagoaren erreforma ere hasi zen ezartzen⁴⁹.

Baina errepublikarren hezkuntza proiektuen etsaiak beste esparruetatik agertzen ziren ere. Bilboko Institutu-Eskola proiektua kinka larrian zegoen zenbait bilbotar politikoa kontserbadoreen ustetan garestiegia zelako. Errepublikarrek politikoa hauei jesulagunen aldekoak izatea leporatzen zieten, kontutan hartuta Bilboko Unibertsitatearen aurka ere zeudelako⁵⁰. Bestetik, ikastetxe pribatuak Bilboko udaletxearen aginduak hezkuntza pribatuaren errolda eratzeke ez zituzten bete, nahiz eta udaletxekeok azpiko meatusak bota⁵¹. Dirudenez Bilboko gizartearen zenbait talde desobedientzia zibilari hasi ziren ekiten, errepublikarren lana behaztopatzeko nahian.

3.2. Bilboko lehen hezkuntzaren birmoldaketa: zenbait ekintza

Errepublikarren lanetan lehen hezkuntza Bilbon birmoldatzeko, zenbait neurri nahiko adierazgarriak hartu zituzten. Hasteko, hezkuntza laikoak ezartzeko eskolako egutegi berri bat antolatzea beharrezkoa izan zen, non jai erlijiosoak baztertuta zeuden. UGT sindikatuaren maisuen sekzioak, 1932ko otsailean, Gobernuari egutegi berri hau ezartzeko eskatu zion. Martxoan, Bizkaiko Lehen Hezkuntzaren Batzordeak egutegi hau ikastetxe guztietan betetzeko zirkular bat zabaldu zuen. Eta batzorde honen hitzez, usadioak onartzen zituzten zenbait jai kontutan hartu zituzten. Zera da, usadioaz baliatzen zuten antzinako jai erlijiosoak antolatzeko. Apirilean batzorde honek auzo eskoletan ere egutegi hau betetzeko agindu zuen eta

⁴⁸ «De enseñanza. Nuevas normas», *El Liberal*, 1932ko irailaren 27a.

⁴⁹ «Contestando a un suelto de Euzkadi. El problema escolar», *El Liberal*, 1932ko urriaren 4a.

⁵⁰ «De enseñanza. Nuevas normas», *El Liberal*, 1932ko urriaren 4a.

⁵¹ «La estadística escolar en los centros particulares de enseñanza», *El Liberal*, 1932ko azaroaren 8a; «Una nueva llamada a los propietarios de los centros particulares de enseñanza», *El Liberal*, 1932ko azaroaren 8a.

ekainean eskolako egutegia plazaratu zuen. Azken mandatu honen arabera, udal hezkuntza kontseiluek zortzi egun libre zituen gutxienez, ohizko jaiak eta feriak ikasturtean zehar ospatzeko⁵².

Eta lehen hezkuntzaren berrikuntzarekin jarraituz, ezinbestekoa zen Errepublikako himnoa eskoletan abestea, behintzat Bilboko ume errepublikar talde baten iritziz, kontutan hartuz eskoletan ez zuten izan inolako ikur errepublikanorik *El Liberal* egunkariari adierazita. Baina arazo larri bat sortu zen, zegoeneko Errepublikak ez zuen himnorik. Ahala eta guztiz ere itxaropen izpi bat agertu zen eta Marzanako ikastetxearen maisu bat *El Liberal* egunkariari idatzi zion azaltzeko maisu berak *Canto a la República* konposatu zuela eta aspaldidanik Marzanako eskolan abesten zela. Hala-ber, maisu honek kantu honen partiturak eskaini zituen beste ikastetxeetan Errepublika goraitzeko musikaren bidez⁵³.

Baina Bilboko udaletxearen ekintzak lehen hezkuntzari zegokionez ez ziren bakarrik egutegi bat ezartzea, baizik eta eskolen eraikuntza berriak bultzatzea ere. Goian aipatu dugunez, Espainiako gobernua lau milioi pezetan eman zion Bilboko udaletxeari hezkuntza plangintza betetzeko. Eta plangintza honen adierazpen nagusienetariko bat San Frantziskozko Ikastetxeak ziren. Udaletxeak, 1932ko apirilean, abuztuko jaiekin batera, ikastetxe honen lanak hasteko nahia adierazi zuen, zirudienez jaien kutsu herrikoia hezkuntza politikoari kutsatu gogoan. Eta aldi berean eskola hau egiteko aurreproiektua aukeratzeko lehiaketa publikoa antolatu zuen.

San Frantzizkoko ikastetxe berria zabaldu bezain laster, udaletxekoena nahia honako izan zen: Marzana eta Las Cortesen eskola publikoak ixtea eta beste ikastetxearen ikasle kopurua murriztea ere. Bilboko udaletxeak propaganda itzela eman zion aurreproiektu honi eta hiri honetako egunkarietan aurreproiektuen lehiaketaren jarraipen zehatza egin zen: lehiakideek bete behar zituen baldintzak, pedagogia modernoan oinarrituta; aurkeztutako aurreproiektuen antolatutako erakusketa, Bilboko herriak kontura zezan lan honen garrantziaz; lehiaketa honen lehengo aldiaren emaitzak; eta agian, garrantzitsuenak, Madrilgo gobernua eskainitako dirulaguntzaren etorrera. 1932. urtearen amaieran lehiaketa honen bigarren aldiaren emaitzak plazaratzeko zorian zeuden eta errepublikarren nahiak proiektu honen bukaeran kokatuta zeuden euren Lehen Hezkuntza Plangintzaren lehenengo pausoak betetzeko⁵⁴.

⁵² «Escuelas y maestros. El calendario escolar», *El Liberal*, 1932ko otsailaren 28a; «El nuevo calendario escolar», *El Liberal*, 1932ko martxoaren 10a; «Unificación del calendario escolar», *El Liberal*, 1932ko apirilaren 19a; «El almanaque escolar en Vizcaya», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 5a.

⁵³ «Como viene. Con pluma ajena. El Himno nacional en las escuelas», *El Liberal*, 1932ko irailaren 30a; «El Himno nacional en las escuelas», *El Liberal*, 1932ko urriaren 1a.

⁵⁴ «El grupo escolar de San Francisco», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko apirilaren 27a; «La escuela modelo», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko maiatzaren 28a; «Las escuelas de San Francisco», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko ekainaren 2a; «Grupo escolar modelo», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko ekainaren 16a; «El futuro grupo escolar modelo», *El Noticiero Bil-*

4. AMAIERA

Bilbon II Errepublika ezarpenarekin batera lehen hezkuntzaren birmoldaketa agertzen zaigu. Udal Lehen Hezkuntza-Patronatuaren lana eskerge izan zen hezkuntza politika berria ezartzeko. Bidea ez zen batere erreza, kontutan hartuz Bilboko hezkuntzaren egoera konplexua zela eta. Errepublikarrek lehen hezkuntzaren birmoldaketa aldarrikatzen zuten gizarte berriaren oinarriak ezartzeko eta demokraziaren zutabe trinkoa eraikitzeko. Bestalde, euskaltzale taldeek euskara ez ezik euskal ohiturak ere eskolara eramaten ahalegintzen zituzten, zentralismoaren batzeko indarra gutxitzeko. Eta ez da ahaztu behar talde kontserbadoreen sator lana errepublikarren legediari uko egiteko.

Honekin lotuta, Bilboko udaletxearen hezkuntza politikoa beste erakundeen eraginaren menpean zegoen. Nahiz eta errepublikarrak Bilboko udaletxearen gehiengoa izan, Bizkaiko Aldundian indar abertzaleak nagusitu ziren. Bestalde, Espainiako Gobernua errepublikarra izan zen. Horrela bazen, Bilboko udaletxeak ezinbesteko laguntza jaso zuen Madrilgo erakundeetatik bete nahi zuen hezkuntza plangintza osatzeko. Ez dira ahaztu behar bi bilbotarren ekimenak lan hauek burutzeko, zera da, Indalecio Prieto eta Julian Zugazagoitiaren laguntza. Hau zela eta Bilboko udaletxeak dirulaguntza ederra eskuratu zuen hezkuntza birmoldaketa arlo guztietan barreiatzeko. Adibidez, eskola berriak zabaltzeko, bai eraikin berrietan edo berreginetan; maisuen egoera laborala bermatzeko ez ezik, irakasle eskolaren ikasketak normalizatzeko; eta ikasketak plan berriak ezartzeko.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Hezkuntza Batzordea abertzaleen eskuetan zegoen. Egia da hezkuntza arloan Bilboko udaletxeak ez zituela bete behar Bizkaiko Aldundien aginduak, baina udaletxe honetako gutxiengo abertzalearen indarra bilbotarren artean soberan hedatua zegoen eta bere iritzia kontutan hartzekoa zen. Horretaz gain, Bilboko udaletxearen EAJren bozeramailea abertzaletasunaren ideologoa Sabino Arana zen eta abertzaleen artean hezkuntza ezinbesteko tresna zen euskal kultura zabaltzeko. Hori zela eta, hezkuntza arloan gutxiengo abertzaletasunaren ekintzak Bilbon suertatzen zen elebitasunaren auzia garatzeko zuzenduta zeuden. Adibidea agerian zegoen, Kataluniako Estatutua, errepublikarrek osatuta.

baño, 1932ko ekainaren 17a; «Concurso para el grupo escolar de San Francisco», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 18a; «El concurso de proyectos para la construcción de un grupo escolar modelo en los solares del cuartel de San Francisco», *El Liberal*, 1932ko ekainaren 19a; «Un empréstito para la construcción de escuelas», *El Liberal*, 1932ko abuztuaren 10a; «Ante una gran obra escolar», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko irailaren 16a; «El grupo escolar de San Francisco», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko urriaren 1a; «El grupo escolar de San Francisco», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko urriaren 29a; «Con pluma ajena. Los proyectos del grupo escolar de San Francisco», *El Liberal*, 1932ko azaroaren 6a; «El concurso de proyectos del grupo escolar de San Francisco», *El Liberal*, 1932ko abenduaren 11a; «La construcción de grupos escolares», *El Liberal*, 1932ko abenduaren 19a.

Arautegi honetan elebitasuna bermatzen zen eta abertzaleek Euskal Estatu-tua eratzen zuten bitartean, non elebitasuna ere bermatuta zegoen, saiatu ziren Bilboko eskoletan ez ezik, Bizkaiko eskola guztietan ere irakaskuntza euskaraz garatzen.

Hezkuntza arloan errepublikarren eta abertzaleen arteko adostasunak zenbait arlotan izan arren, batez ere lehen hezkuntzaren gabeziarik latzenak konpontzeko unean, Bilboko kontserbadoreen ekintzek helmuga bat baino ez zuten izan, zera, Errepublikaren ideologia deuseztatzea. Aipatu dugu talde kontserbadoreen sator lana Bilboko hezkuntzaren aginduak ez betetzeko, baina hau adibide txiki bat baino ez da izan gizarte osoan Errepublikaren aurkako desobedientzi zibila zabaltzeko. Hezkuntza, batez ere lehen hezkuntza, baliabide oso garrantzitsua izan zen botere baten aurkako jendearen kritikak suspertzeko. Kasu honetan, sistema kontserbadorea kinka larrian zegoen eta etsaiak errotik akabatzeko, errepublikarren hezkuntza politika behaztopatzea saiakerak amaigabeak ziren. Dena dela, kontserbadoreek onartzen zituzten Bilbon gertatzen zen hezkuntza auzia, baina eskaintzen zituzten irtenbideak betiko eskuetan uzten zituzten, zera, irakaskuntza pribatuan eta Elizan.

Bukatzeko, konplexua da Errepublikaren lehenengo bi urteren emaitza zehaztea, batez ere lehen hezkuntzan. Elkarte errepublikarren ekintzak frankotan agertu ziren komunikabide guztietan, nahiz eta egunkari hauek ideologikoki oso desberdinak izan, bai lan hauek goraiatzeko, bai kritikatzeko. Dena dela tarte honetako Errepublikaren lana zenbakiz adierazi behar badugu, hona hemen Bilboko udaletxeak aurkeztu zuen informazioa, 1931ko apirilaren 1teko eta 1932ko irailaren 19ko lehen hezkuntzaren datuak konparatuz: 1931. urtean, ikastetxe nazionaletan 146 maisuak ziren eta 1932. urtean, 214; 1931. urtean, udal ikastetxeetan 98 maisuak ziren eta 1932. urtean, 100. Guztira, 70 maisu gehiago. Eta ikasleen asistentziari zegokionez, 1931ko apirilaren 1ean 12.327 umeak matrikulatuta zeuden bitartean, 1932ko irailaren 19an 15.481 umeak. Diferentzia, 3.154 ikasle gehiago⁵⁵. Bilboko lehen hezkuntzaren aurrerapena zenbakiz neurtzen badugu, aipatutako zifrek hobekuntza adierazi dute, baina, kopuruen handitze honek hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza ere erakusten zaigu? Eta, aurrerabide hau Errepublika garai osoan mantendu egin zen? Galdera hauen erantzunak beste ikerlan batean aztertzeke uzten ditugu.

Jasotze-data: 2007-5-04

Onartze-data: 2007-11-8

⁵⁵ «La enseñanza primaria en Bilbao», *El Liberal*, 1932ko urriaren 26a; «La enseñanza primaria en Bilbao», *El Noticiero Bilbaíno*, 1932ko urriaren 26a.

A new political regime emerged from the municipal elections of 14th April 1931: the 2nd Republic. From the very beginning, the consequences of this political change were significant in all areas of society particularly because Republican leaders tried very hard to erase all signs of the monarchy. In the field of education, Republicans wanted to instil a new system based on liberal ideas. The Republicans weaved this new model into the roots of society, as they considered an appropriate education system was essential to guarantee democracy. How did the Republicans believe that it would guarantee democracy? By children receiving education from a very young age which allowed them to be a free and committed citizen. The Republicans won the municipal elections on 14th April 1931 and from the very start they tried to apply the Republic's ideological principles. As a consequence of this, the first steps taken in Bilbao city council were aimed at resolving the serious teaching problem in this town, based on new pedagogy of the time. This article analyses these changes' first steps.

Keywords: *Historical research. Public education. Primary education. Language learning. Second language.*

En las elecciones municipales del 14 de abril de 1931 surgió un nuevo régimen político, la II República. Las consecuencias de este cambio político fueron desde un primer momento bastante notables en todos ámbitos de la sociedad sobre todo porque los mandatarios republicanos se esforzaron en hacer desaparecer toda huella de la monarquía. En el ámbito de la educación, los republicanos quisieron instaurar un nuevo sistema basado en las ideas liberales. Los republicanos imbricaban este nuevo modelo en las mismas raíces de la sociedad, puesto que consideraban que era indispensable un adecuado sistema de educación para garantizar la democracia. ¿Cómo pensaban los republicanos que podía garantizarse la democracia? Recibiendo el niño desde pequeño una educación que le permitiese ser un ciudadano libre y comprometido. Los republicanos ganaron las elecciones municipales del 14 de abril de 1931 y desde un principio intentaron aplicar los principios ideológicos de la República. Como consecuencia de ellos, los primeros pasos del ayuntamiento de Bilbao fueron dirigidos a solventar el grave problema de la enseñanza que sufría esta villa, basándose en las nuevas corrientes pedagógicas. En este artículo se analizan los primeros pasos de estos cambios.

Palabras clave: *Investigación histórica. Enseñanza pública. Educación primaria. Aprendizaje de idiomas. Segunda lengua.*

«Lors des élections municipales espagnoles du 14 avril 1931 est apparu un nouveau régime politique, la II^{ème} République. Les conséquences liées à ce changement politique ont été dès le début très remarquées dans tous les domaines de la société surtout parce que les élus de la République se sont efforcés de faire disparaître toute trace de la monarchie. Dans le domaine de l'éducation, les républicains ont voulu instaurer un nouveau système basé sur les idées libérales. Les républicains imbriquaient ce nouveau modèle sur les mêmes racines de la société, en effet ils jugeaient indispensable d'avoir un système éducatif adapté pour garantir la démocratie. Comment les républicains pensaient-ils pouvoir garantir la démocratie ? En donnant dès le plus jeune âge à l'enfant une éducation qui lui permette d'être un citoyen libre et engagé. Les républicains ont remporté les élections municipales du 14 avril 1931 et dès le début ils ont tenté d'appliquer les principes idéologiques de la République. Conséquence de cela, les premiers pas de la municipalité de Bilbao ont été pour résoudre le grave problème de l'enseignement dont souffrait cette ville, en se basant sur les nouveaux courants pédagogiques. Les premiers pas de ce changement sont analysés dans cet article.

Mots clé: Recherche historique. Enseignement publique. Enseignement primaire. Apprentissage des langues. Deuxième langue.

BIBLIOGRAFIA

- DÍAZ FREIRE, J.J. (1984). *La República y el porvenir*. Donostia: Kriselu
- CAPITÁN DÍAZ, A. (2002). *Republicanism and education in Spain (1873-1951)*. Madril: Dykinson
- JULIÁ, S. (1984). *Madril 1931-1934. De la fiesta popular a la lucha de clases*. Madril: Siglo XXI
- ORTEGA Y GASSET, J. (1984). *La rebelión de las masas*. Bartzelona: Planeta-Agostini.
- GONZÁLEZ PORTILLA, M. (ED.) (1995). *Bilbao en la formación del País Vasco contemporáneo (economía, población y ciudad)*. Bilbo: Fundación BBV, Documenta.
- GONZÁLEZ PORTILLA, M. (ED.) (2001). *Los orígenes de una metrópoli industrial: la Ría de Bilbao*. Bilbo: Fundación BBV.
- PRIETO, I. (2005). *Las cortes del desastre: «Impresiones parlamentarias»* (Indalecio Prietok Bilboko *El Liberal* egunkarian argitaratuta. Manuel Monteroren edizioa). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.